Sin./Fdo.: SUSANA GONZALEZ LLAMAZARES 2025-02-04
ZENTROEN ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE ATENCIÓN EN CENTROS

Sin./Fdo.: IMANOL MADARIAGA SASIETA 2025-02-04
MENDEKOTASUNAREN ARRETARAKO ZUZENDARIORDEA
SUBDIRECTOR/A DE ATENCIÓN A LA DEPENDENCIA

Sin./Fdo.: JOSE ANTONIO BARAÑANO AZULA 2025-02-04
AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL PARA LA PROMOCIÓN DE LA AUTONOMÍA PERSONAL

Sin./Fdo.: AMAIA ANTXUSTEGI ZIARDA - 2025-02-04
GIZARTE EKINTZA SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE ACCIÓN SOCIAL

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2025-02-13
GZko 9.gaia onartuta - Aprobado, asunto 9) de OD



ERABAKIA, onesten duena Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ondarroako Udalak honako zerbitzu publiko hau egiteko sinatuko duten lankidetza-hitzarmena: mendekotasunean dauden pertsonentzako egoitza-zerbitzua Ondarroako “Artibai” egoitzan (Artibai kalea, 4).

ACUERDO por el que se aprueba el convenio de colaboración a suscribir entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Ondarroa para prestación del servicio público foral de residencias para personas en situación de dependencia en la residencia “Artibai” sita en la Calle Artibai, nº4 de Ondarroa.

Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arautuko duten printzipioak ezartzen ditu 7. artikuluan, eta lehenengo paragrafoan adierazten du botere publikoek bermatuko dutela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan arautatako prestazio eta zerbitzuak eskura eta eskuragarri izatea.

La Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en su artículo 7 determina los principios por los que se regirá el Sistema Vasco de Servicios Sociales, señalando en su apartado primero que los poderes públicos garantizarán la disponibilidad y el acceso a las prestaciones y servicios regulados en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Lege horren 41. artikuluan foru aldundiei eman zaie 22. artikuluko 2. atalean arautukako bigarren mailako laguntzarako gizarte-zerbitzuak emateko eskumena (horren barruan berariaz sartzen da mendekotasun-maila baloratzea), bai eta mendekotasuna duten pertsonentzako egoitza-zerbitzuen gaineko eskumena ere. Bestalde, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorreko testu bategina onetsi zuen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bosgarren xedapen gehigarriak Bizkaiko Foru Aldundiari ahalmena eman zion lankidetza hitzarmenak egiteko herritarren onurarako jarduerekin zerikusia duten erakunde publiko zein pribatuekin, betiere gizarte-zerbitzuen arloko helburuak lortzeko.

El artículo 41 de la citada ley atribuye a las Diputaciones Forales la provisión de los servicios sociales de atención secundaria regulados en el apartado 2 del artículo 22, que incluye específicamente la valoración de la dependencia y, entre otros, los servicios residenciales para personas en situación de dependencia. Por su parte, la Disposición Adicional Quinta del Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006 de 29 de diciembre General Presupuestaria faculta a la Diputación Foral de Bizkaia para celebrar convenios de colaboración con Entidades Públicas o privadas relacionadas con la prestación de actividades, de interés público y en concreto, siempre que tenga como objeto el ámbito de los Servicios Sociales.

Lege hori garatzeko 185/2015 Dekretua onetsi zen. Dekretu horren bitartez Prestazio eta

En desarrollo de la citada Ley se aprobó el Decreto 185/2015, que regula la Cartera de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 17FO-9MY6-ZNM1-2GF3
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Gizarte Zerbitzuen Zorroa arautzen da, eta bere eskumenekoak diren derrigorrez eman beharreko zerbitzu eta prestazio ekonomikoei dagokienez, euskal administrazio publikoen maila bakoitzaren betebeharra zehazten du.

Prestaciones y Servicios Sociales, que delimita la obligación de cada nivel de las administraciones públicas vascas respecto a los servicios y prestaciones económicas, de obligada provisión, que recaen en su competencia.

Aurrean aipatutako 185/2015 Dekretuan ezartzen dena betetzeko helburuarekin, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) esparru-akordioa sinatu zuten, bakoitzak bere eskumenak erabiliz, udalen titulartasuneko egoitza-zentroen inguruko lankidetzarako. Akordioak 2017ko apirilaren 1etik aurrera sortu ditu ondorioak.

Con fecha de efectos 1 de abril de 2017, en el ejercicio de sus respectivas competencias, y con el fin de dar cumplimiento a lo previsto en el citado Decreto 185/2015, el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia y la Asociación de Municipios Vasco (EUDEL) se firmó un Acuerdo – Marco para la colaboración en relación a los centros residenciales de titularidad municipal.

Akordio horren V. atalean honako hau ezartzen da: *"Banakako lankidetza-hitzarmenak esparru-akordio honetan ezarritakoarekin bat etorriz sinatuko dira, eta indarraldia urtebetekoa izango da, lehenengo urtean izan ezik, orduan 2017ko abenduaren 31ra arte egongo baitira indarrean. Hurrengo ekitaldietan, hitzartutako plazen kopurua egoitza-zentroetan jasotzen den II. edo III. mailetako mendekotasuna duten adinekoentzako plazen eskaeraren arabera ezarriko da, betiere zentroaren edukiera kontuan izanik."*

El citado acuerdo, establece, entre otras cosas, en su apartado V que *"los Convenios de Colaboración Individualizados, se suscribirán en los términos de este acuerdo marco con una periodicidad anual, salvo el primer año que será hasta el 31 de diciembre de 2017. El número de plazas convenidas en ejercicios futuros se determinará en función de la demanda real de plazas para personas mayores dependientes grados II y III que tengan los centros residenciales y siempre con el límite de la capacidad del centro."*

Akordio hori betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ondarroako Udalak (Ondarroako Artibai kaleko 4.ean dagoen "Artibai" egoitzaren titulartasuna daukanak) honako lankidetza-hitzarmen hau sinatu dute 2025. urterako.
Administrazio arteko hitzarmena da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2 artikuluan arautzen diren horietakoa, bertan parte hartzen baitute bi administrazio publiko: Bizkaiko Foru Aldundiak, batetik, eta Ondarroako Udalak, bestetik.

En cumplimiento del citado acuerdo se suscribe para el año 2025 el presente Convenio de Colaboración entre Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Ondarroa que ostenta la titularidad de la residencia "Artibai" sita en la calle Artibai, nº 4, de dicha localidad.
Se trata de un convenio interadministrativo de los previstos en el artículo 47.2 de la ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público toda vez que intervienen en el mismo dos Administraciones públicas: La Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Ondarroa.

Subjektu Sinatzaileei dagokienez, testu honen xedea eta izaera kontuan hartuta, adierazi behar da proposatutako hitzarmenean Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legetik (6.1 artikulua) kanpo dauden

Atendiendo a los sujetos firmantes, al objeto y naturaleza del presente texto hay que señalar que en el Convenio propuesto se establecen relaciones de colaboración que se encuentran excluidas de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 17FO-9MY6-ZNM1-2GF3
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

lankidetza-harremanak ezartzen direla, eta helburuen artean kudeaketaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea dagoela, bi administrazioei dagozkien eskumenetarako balio duten azpiegiturak batera erabiltzen baitira.Hitzarmenaren martxa ona ikusita, eta adierazitako helburuekin, 2025ko lankidetza arautuko duen testu berria onetsi beharra ikusten da. Testu hori 2025ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean (atzerako eraginagaz).

Azaldutakoaren arabera, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 28. eta 66. artikuluak eta Gizarte Ekintza Sailaren Araudi Organikoa onesten duen azaroaren 22ko 135/2022 Foru Dekretua ikusita, eta Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onesten duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bosgarren xedapen gehigarriak emandako ahalmenez baliatuz, sinatzen duen honek Gizarte Ekintzako foru diputatuari proposatzen dio Bizkaiko Foru Aldundiaren irizpenerako utz dezala honako erabaki hau, egoki baderitzo, gero hark onets dezan, bidezkoa bada.

ERABAKI PROPOSAMENA

<u>LEHENENGOA</u>.- Onestea Bizkaiko Foru Aldundiak (IFZ: P4800000D) eta **Ondarroako udalak (IFZ: P4808600C)** honako zerbitzu publiko hau egiteko sinatuko duten lankidetza-hitzarmena: **mendekotasunean dauden pertsonentzako egoitza-zerbitzua** Ondarroako Artibai Kaleko 4.ean dagoen egoitzan. Horren arabera, 39 plaza okupatu eta erreserbatuko dira Bizkaiko Foru Aldundiarentzat, modu esklusiboan, erantsitako hitzarmenaren testuan ezarritako arabera.

de Contratos del Sector Público (artículo 6.1) y que tiene entre sus objetivos mejorar la eficacia y la eficiencia en la gestión, al utilizar de manera conjunta infraestructuras que sirven para competencias que corresponden a ambas administraciones.
Vista la buena marcha del convenio y con los objetivos indicados se ve la necesidad de aprobar un nuevo texto que regule la colaboración para el año 2025 y que entrará en vigor con efectos retroactivos el 1 de enero de 2025.

En virtud de lo expuesto y vistos los artículos 17, 28 y 66 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como el Decreto Foral 135/2022, de 22 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Acción Social, y en uso de las facultades conferidas por la Disposición Adicional Quinta del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, quien suscribe eleva propuesta a la Sra. Diputada Foral de Acción Social, en el sentido de que, si lo estima pertinente, someta a la consideración de la Diputación Foral de Bizkaia, para su estudio y aprobación, si procede, la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO

<u>PRIMERO</u>.- Aprobar el Convenio de colaboración a suscribir entre la Diputación Foral de Bizkaia (N.I.F: P4800000D) **y el Ayuntamiento de Ondarroa (N.I.F: P4808600C) para la prestación del servicio público foral de residencias para personas en situación de dependencia** en la residencia sita en la calle Artibai, nº 4, de dicha localidad, mediante la ocupación y reserva a favor de la Diputación Foral de Bizkaia, en exclusiva, de 39 plazas, de acuerdo con lo estipulado en el texto del Convenio anexado.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 17FO-9MY6-ZNM1-2GF3
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hitzarmena atzerako eraginagaz **2025eko urtarrilaren 1etik 2025ko abenduaren 31ra arte** egongo da indarrean.

La vigencia del presente convenio se extenderá con efectos retroactivos desde el **1 de enero de 2025 hasta el 31 de diciembre de 2025**.

Hitzarmenaren guztirako prezioa **1.631.331,00 € da (BEZ gabe);** hona xehetasunak

El precio total del convenio asciende a **1.631.331,00 € (SIN IVA)** de acuerdo con los siguientes términos:

| PLAZA KOP.<br>Nº PLAZAS | PREZIOA PLAZA/EGUNEKO (BEZ GABE)<br>PRECIO PLAZA/DÍA<br>(IVA NO INCLUIDO) | EGUNAK<br>DÍAS | OKUPAZIOA<br>OCUPACIÓN | PREZIOA GUZTIRA (BEZ GABE)<br>PRECIO TOTAL<br>(IVA NO INCLUIDO) |
|---|---|---|---|---|
| 39 | 114,60 € | 365 | 100% | **1.631.331,00 €** |

Hitzarmen honek eragingo duen gastuari aurre egiteko kreditu nahikoa dago aurrekontu-partida honetan: 231.106 03 03 237.08 PEP 2009/0045.

Para hacer frente al gasto originado por el presente convenio existe crédito adecuado y suficiente en la partida presupuestaria 231.106 03 03 237.08 PEP 2009/0045.

<u>BIGARRENA</u>.- Gizarte Ekintzako foru diputatuari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

<u>SEGUNDO</u>.- Facultar a la Diputada Foral del Departamento de Acción Social para que proceda a la firma del mencionado convenio.

<u>HIRUGARRENA</u>.- Hitzarmen hau aplikatzeak eragiten dituen ordainketak aurrekontuko partida honen kargura egingo dira: Organikoa: 0303, Programa: 231106; Ekonomikoa: 23708; Proiektuaren zk.: 2009/0045.

<u>TERCERO</u>.- Los pagos derivados de la aplicación del presente Convenio se efectuarán con cargo a la partida presupuestaria, Orgánico 0303, Programa 231106; Económico 23708, Nº de Proyecto 2009/0045.

<u>LAUGARRENA</u>.- Erabaki hau alderdi interesdunei jakinaraztea legez ezarrita dagoen bezala.

<u>CUARTO</u>.- Notificar el presente acuerdo, en legal forma, a las partes interesadas.

Zentroen Zerbitzuko burua/La jefatura del Servicio de Centros. SUSANA GONZÁLEZ LLAMAZARES.

*O.E./Vº Bº*

Pertsonen Autonomia sustatzeko Zuzendariordetza /La Subdirección para la Promoción de la Autonomía personal. IMANOL MADARIAGA SASETA.

Autonomia Pertsonala sustatzeko Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Promoción de la Autonomía personal. JOSE ANTONIO BARAÑANO AZULA.

**Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio,/De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.**

Gizarte Ekintzako foru-diputatua/ La diputada foral de Acción Social. AMAIA ANTXUSTEGI ZIARDA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 17FO-9MY6-ZNM1-2GF3
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA ONDARROAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, BESTEREN LAGUNTZA BEHAR DUTEN ADINEKOEI EGOITZA ZERBITZUA EMATEKO ARTIBAI EGOITZAN, ONDARROAKO ARTIBAI KALEA 4AN DAGOENA.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL AYUNTAMIENTO DE ONDARROA PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO FORAL DE RESIDENCIAS PARA PERSONAS MAYORES DEPENDIENTES EN LA RESIDENCIA ARTIBAI, SITA EN LA CALLE ARTIBAI, 4 DE ONDARROA.

BILDU DIRENAK

ALDE BATETIK, Amaia Antxustegi Ziarda and., Gizarte Ekintza Saileko foru diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean (IFZ: P4800000D) eta haren ordezkari gisa Gobernu Kontseiluaren ko erabakiaren bidez hitzarmen hau formalizatzeko ahalmena duena,

BESTETIK, Urtza Alkorta Arrizabalaga and., Ondarroako Udalaren (IFZ P4808600-C) Alkate-udalburua den aldetik

Alderdiek agiri hau formalizatzeko behar den gaitasun juridikoa aintzatetsi diote elkarri eta, ados jarrita, aritzeko eman zaien ordezkaritza onartu diote elkarri.

ADIERAZI DUTENA

<u>LEHENENGOA</u>.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, bere 7. artikuluan, gizarte zerbitzuen euskal sistema eraenduko duten oinarriak ezarri ditu. Testu horretan esaten du, hain zuzen ere bere lehen idatz-zatian, herri botereek bermatu egingo dutela gizarte zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoan ezartzen diren prestazioen eta bertan erregulatzen diren zerbitzuen eskuragarritasuna eta irisgarritasuna.

SE REÚNEN

DE UNA PARTE, Dña. Amaia Antxustegi Ziarda, Diputada Foral del Departamento de Acción Social, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia (NIF: P4800000D), encontrándose facultado para la formalización del convenio por el Acuerdo del Consejo de Gobierno, de

DE OTRA PARTE, Urtza Alkorta Arrizabalaga, en su condición de alcaldesa del Ayuntamiento de Ondarroa, N.I.F. P4808600-C.

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad jurídica necesaria para la formalización del presente documento y aceptándose recíprocamente las representaciones a cuyo tenor actúan, de común acuerdo

MANIFIESTAN

<u>PRIMERO</u>.- Que la Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en su artículo 7 determina los principios por los que se regirá el Sistema Vasco de Servicios Sociales, señalando en su apartado primero que los poderes públicos garantizarán la disponibilidad y el acceso a las prestaciones y servicios regulados en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 17FO-9MY6-ZNM1-2GF3
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Gizarte zerbitzuen euskal sistemaren barruko oinarrien artean azpimarratu behar dira, erantzukizun publikoa, unibertsaltasuna, berdintasuna eta ekitatea ez ezik, hurbiltasuna, aurrearreta, jaramon pertsonalizatua eta integrala eta jarraipena arreta horretan, esku hartzeen diziplina askotako izaera, koordinazioa eta lankidetza, gizarte ekimenaren sustapena, herritarren parte hartzea eta kalitatea.

BIGARRENA.- Aipatutako legearen 41. artikuluak Foru Aldundiei eratxikitzen die bigarren mailako arreta-zerbitzu sozialak ematea. Zerbitzuok 22. artikuluko 2. apartatuan arautzen dira, non berariaz jasotzen baitira mendetasunaren balorazioa eta, besteak beste, mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zerbitzuak.

HIRUGARRENA.- Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatuz 185/2015 Dekretua onetsi zen. Dekretu horren bitartez Prestazio eta Gizarte Zerbitzuen Zorroa arautzen da, eta bere eskumenekoak diren derrigorrez eman beharreko zerbitzu eta prestazio ekonomikoei dagokienez, euskal administrazio publikoen maila bakoitzaren betebeharra zehazten du.

Zehazki, bigarren mailako arretako –eta, beraz, Foru Aldundiek hornitu beharreko– gizarte-zerbitzu gisa ezarri ziren honako hauek: II. eta III. mailako mendekotasuna duten adinekoei eta, salbuespen gisa, I. mailakoa dutenei, ohiko etxebizitza edo etxebizitza iraunkorra moduan, edo kasua balitz, aldi baterako, balio zaizkien zentroak; hau da, adinekoen egoitza-zentroak deritzenak (2.4.1.).

Bestalde, lehen mailako arretako –eta, beraz, udalek hornitu beharreko– gizarte-zerbitzu gisa ezarri ziren mendekotasuna duten (I. maila) adinekoentzako intentsitate txikiko ostatu-zerbitzuak; hau da, adinekoen ostatu-zerbitzuak deritzenak (1.9.3. eta 1.9.4.).

Entre los principios por los que se regirá el Sistema Vasco de Servicios Sociales destacan, además del de responsabilidad pública, universalidad, igualdad y equidad, los de proximidad, prevención, atención personalizada e integral y continuidad de la antención, carácter interdisciplinar de las intervenciones, coordinación y cooperación, promoción de la iniciativa social, participación ciudadana y calidad.

SEGUNDO.- El artículo 41 de la citada ley atribuye a las Diputaciones Forales la provisión de los servicios sociales de atención secundaria regulados en el apartado 2 del artículo 22, que incluye específicamente la valoración de la dependencia y, entre otros, los servicios residenciales para personas en situación de dependencia.

TERCERO.- En desarrollo de la ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales se aprobó el Decreto 185/2015, que regula la Cartera de Prestaciones y Servicios Sociales, que delimita la obligación de cada nivel de las administraciones públicas vascas respecto a los servicios y prestaciones económicas, de obligada provisión, que recaen en su competencia.

Así en concreto, se fijan como servicios sociales de atención secundaria, y por tanto de provisión por las Diputaciones Forales, los centros para servir de vivienda habitual o permanente y, en su caso temporal, a personas mayores en situación de dependencia en Grados II y III y excepcionalmente con Grado I, que denomina Centros Residenciales para personas mayores (2.4.1.).

Por su parte se fijan como servicios sociales de atención primaria, y por tanto de provisión por los Ayuntamientos, los recursos de alojamiento de baja intensidad destinados a personas mayores en situación de dependencia (Grado I), que denomina Servicios de alojamiento para personas mayores (1.9.3. y 1.9.4.).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 17FO-9MY6-ZNM1-2GF3
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

LAUGARRENA.- 2017ko apirilaren 1etik aurrera, dituzten eskumenak baliatuz eta aipatutako 185/2015 Dekretuan aurreikusitakoa betetzeko helburuarekin, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) esparru-akordioa sinatu dute udaleko titulartasuna duten egoitzazko zentroetako lankidetzarako.

CUARTO.- Con fecha de efectos 1 de abril de 2017, en el ejercicio de sus respectivas competencias, y con el fin de dar cumplimiento a lo previsto en el citado Decreto 185/2015, el Departamento de-Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia y la Asociacion de Municipios Vasco (EUDEL) han firmado un Acuerdo – Marco para la colaboración en relación a los centros residenciales de titularidad municipal.

Aipatutako akordioak hauxe zehazten du bere V. atalean, beste gauza batzuen artean: “*Kontrakoa itundu ezean, banakako lankidetza-hitzarmenak esparru-akordio honetan ezarritako baldintzekin bat egingo dira urtebeteko aldietarako, lehenengo urtean izan ezik, zeinak 2017ko abenduaren 31ra arte iraungo duen. Etorkizuneko ekitaldietan, hitzartutako plaza-kopurua eskaera errealaren arabera –II. edo III. mailako mendekotasuna duten adinekoena– ezarriko da, betiere, zentroaren edukiera kontuan izanik*”.

El citado acuerdo, establece, entre otras cosas, en su apartado V que “*los Convenios de Colaboración Individualizados, se suscribirán en los términos de este acuerdo marco con una periodicidad anual, salvo el primer año que será hasta el 31 de diciembre de 2017. El número de plazas convenidas en ejercicios futuros se determinará en función de la demanda real de plazas para personas mayores dependientes grados II y III que tengan los centros residenciales y siempre con el límite de la capacidad del centro.*”

BOSGARRENA.- Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko Foru Arau Orokorraren testu bategina onesteko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileko bosgarren xedapen gehigarrian ahalmena eman zaio Bizkaiko Foru Aldundiari lankidetza-hitzarmenak egiteko herritarren onurarako jarduerekin zerikusia duten erakunde publiko zein pribatuekin, gizarte zerbitzuen arloko helburuak lortzeko.

QUINTO.- La Disposición Adicional Quinta del Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006 de 29 de diciembre, General Presupuestaria faculta a la Diputación Foral de Bizkaia para celebrar convenios de colaboración con Entidades Públicas o privadas relacionadas con la prestación de actividades, de interés público y en concreto, siempre que tenga como objeto el ámbito de los Servicios Sociales.

SEIGARRENA.- Ondarroako Udala herrian bertan (helbidea: Artibai kalea, 4) dagoen Artibai egoitzaren jabea da.

SEXTO.- El Ayuntamiento de Ondarroa ostenta la titularidad de la residencia Artibai sita en la calle Artibai, nº 4 de dicha localidad.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2 artikuluan aurreikusita dagoen administrazioen arteko hitzarmena da. Izan ere, hitzarmen honetan bi administrazio publiko parte hartzen dute: alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundia eta beste aldetik, Ondarroako Udala.

Se trata de un convenio interadministrativo de los previstos en el artículo 47.2 de la ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público toda vez que intervienen en el mismo dos Administraciones públicas, por un lado, la Diputación Foral de Bizkaia y por otro, el Ayuntamiento de Ondarroa.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 17FO-9MY6-ZNM1-2GF3
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Kontuan harturik testu hau nork sinatzen duen eta zein diren beronen xedea eta izaera, adierazi behar da, batetik, proposatzen den hitzarmenean ezartzen diren lankidetza-harremanak salbuetsita daudela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea betetzetik (6.1 artikulua), eta, bestetik, testuaren xedeetako bat dela kudeaketaren eraginkortasuna eta efizientzia gehitzea, administrazio biei dagozkien eskumenak gauzatzeko azpiegiturak modu partekatuan erabilita.

Atendiendo a los sujetos firmantes, al objeto y naturaleza del presente texto hay que señalar que en el Convenio propuesto se establecen relaciones de colaboración que se encuentran excluidas de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (artículo 6.1) y que tiene entre sus objetivos mejorar la eficacia y la eficiencia en la gestión, al utilizar de manera conjunta infraestructuras que sirven para competencias que corresponden a ambas administraciones.

Hitzarmenaren martxa ona ikusita, 2025rako lankidetza arautuko duen testu berri bat onartzeko aukera eta beharra ikusten da, 2025ko urtarrilaren 1ean indarrean jarriko dena, atzeraeraginezko ondorioekin.

Vista la buena marcha del convenio se ve la oportunidad y la necesidad de aprobar un nuevo texto que regule la colaboración para el año 2025 y que entre en vigor, con efectos retroactivos, el 1 de enero de 2025.

Horrenbestez, hitzarmen hau sinatzea justifikatzen duten interes sozialeko arrazoiak daude; hitzarmenaren xedeen artean dago, besteak beste, kudeaketaren eraginkortasuna eta efizientzia gehitzea, administrazio biei dagozkien eskumenak gauzatzeko azpiegiturak modu partekatuan erabilita.

Concurren, por tanto, razones de interés social que justifican la firma del presente convenio que tiene entre sus objetivos mejorar la eficacia y la eficiencia en la gestión, al utilizar de manera conjunta infraestructuras que sirven para competencias que corresponden a ambas administraciones.

Aurrekari horien arabera, bi erakundeek bidezkotzat jo dute lankidetza-hitzarmena egitea. Jarraian hitzarmeneko klausulak azalduko dira.

Con base en tales antecedentes ambas entidades consideran oportuno establecer un convenio de colaboración, con arreglo a las siguientes:

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

LEHENENGOA.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Ondarroako Udalaren (aurrerantzean Udala) arteko lankidetza ezartzea da, besteren laguntza behar duten adinekoei Artibai egoitzan (Artibai kalea, 4) (aurrerantzean udal egoitza) egoitza zerbitzua emateko. Hain zuzen ere, egoitza horretako 39 plaza Bizkaiko Foru Aldundiarentzat gordeko dira, modu esklusiboan.

PRIMERA.- OBJETO.

El presente convenio tiene por objeto establecer las relaciones de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Ondarroa (En adelante el Ayuntamiento), para la prestación del servicio público foral de residencias para personas mayores dependientes en la residencia Artibai, sita en la calle Artibai, nº 4, (En adelante la residencia municipal), mediante la ocupación y reserva a favor de la Diputación Foral de Bizkaia, en exclusiva, de 39 plazas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 17FO-9MY6-ZNM1-2GF3
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BIGARRENA.- HITZARMENAREN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Hitzarmen hau administratiboa da, eta bertan xedatutakoari ez ezik zuzen edo zeharka aplika daitezkeen Administrazio Zuzenbideko arauei ere lotu behar zaie.

Hain zuzen, jarraian adieraziko diren testuetan xedatutakoa aplikatu behar da:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 5/2006, abenduaren 29koa, Foru Arauaren Testu Bategina onetsi duena.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko kasuan kasuko urteko aurrekontu orokorrari buruzko foru araua.
- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzkoa.
- 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa.
- Ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa

SEGUNDA.- REGIMEN JURÍDICO DEL CONVENIO.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de Derecho Administrativo que, directa o por analogía, pudieran resultar de aplicación.

En particular, resulta aplicable lo dispuesto en:

- La Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
- Ley 12/2008, de 5 de diciembre, del Parlamento Vasco, de Servicios Sociales.
- Decreto legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.
- Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
- Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria..
- La Norma Foral de Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia del año correspondiente.
- Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.
- Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.
- Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 17FO-9MY6-ZNM1-2GF3
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten da, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bateginagaratzen duena.

- Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 6ko 64/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubideen eta betebeharren agiria eta iradokizun eta kexen araubidea onetsi dituena.

- Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 10eko 40/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuak baimendu, erregistratu, homologatu eta ikuskatzeko arauak ezarri dituena.

- Uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzkoa.

- Besteren laguntza behar duten egoitza-egonaldiei buruzko foru arautegia (aldi baterako egonaldiak eta behin betikoak).

- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) arteko esparru-akordioa, udaleko titulartasunekoak diren egoitzazko zentroei buruzkoa.

HIRUGARRENA.- EGOITZA ZERBITZUA

a. Egoitzaren definizioa.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuarean arabera egoitzak, euren ohiko inguruan beharrizanak era egokian asetzeko aukerarik ez duten II. eta III. graduko –eta, aparteko kasuetan, baita I. gradukoak ere-mendetasun-egoeran dauden pertsonei ohiko etxebizitza edo etxebizitza iraunkorra eskaintzen

- Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

- El Decreto 64/2004, de 6 de abril, del Gobierno Vasco, por el que se aprueba la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas.

- El Decreto 40/1998, de 10 de marzo, del Gobierno Vasco, por el que se regula la autorización, registro, homologación e inspección de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- El Decreto 126/2019, de 30 de julio, de centros residenciales para personas mayores en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- La normativa foral reguladora de las estancias permanentes y temporales en centros residenciales para personas dependientes.

- Acuerdo – marco para la colaboración entre el Departamento de Acción Social de la Diputación foral de Bizkaia y la Asociacion de municipios vascos (EUDEL), en relación a los centros residenciales de titularidad municipal.

TERCERA.- DEFINICIÓN DEL SERVICIO.

a. Definición de residencia.

En el marco de las previsiones del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales se considerará residencia a los centros destinados a servir de vivienda habitual o permanente y, en su caso temporal, a personas en situación de dependencia en Grados II y III –y excepcionalmente en grado I– que no pueden

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 17FO-9MY6-ZNM1-2GF3
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dietenak eta, hala denean, baita aldi baterakoa ere; halaber, intentsitate handiagoko laguntzak behar dituztelako izaera arinagoko ostatu-alternatibak izan daitezke, horrelakoetan zentro horietan arreta integrala eta iraunkorra eskainiz.

satisfacer adecuadamente sus necesidades en su entorno habitual, o en alternativas de alojamiento de carácter más ligero, por requerir apoyos de mayor intensidad, ofreciéndose en estos centros una atención integral y continua.

b. Egonaldi motak.

b. Clases de estancia.

Egoitzetako plazak aldi batez zein betiko okupa daitezke.

La ocupación de las plazas residenciales podrá realizarse tanto en estancia permanente como en estancia temporal.

Norbait mugaeguna ezarri gabe sartzen bada egoitzan, egonaldia iraunkortzat hartuko da.

Se considerará estancia permanente el ingreso que se realice con carácter indefinido.

Norbait mugaeguna ezarrita sartzen bada, haren egonaldia aldi baterakoa izango da.

Se considerará estancia temporal cuando el ingreso se realice por un periodo de tiempo definido.

Aurrekoaz gain, egoitzako zerbitzu soziosanitarioa eman ahal izango da, urriaren 18ko 117/2022 Foru Dekretuan zehaztutako baldintzetan eta profiletarako; dekretu horren bidez, foru-eskumeneko egoitza-baliabide soziosanitarioetarako baloraziorako eta sarbiderako prozedura arautzen da.

Además de lo anterior se podrá prestar servicio residencial sociosanitario en los términos y para los perfiles definidos en el Decreto Foral 117/2022, de 18 de octubre por el que se regula el procedimiento de valoración y acceso a los recursos residenciales sociosanitarios de competencia foral en el Territorio Histórico de Bizkaia.

c. Kokalekua.

c. Ubicación.

Zerbitzu hau hitzarmeneko lehenengo klausulan aipatutako eraikinean egingo da.

La prestación del presente servicio se realizará en el inmueble indicado en la cláusula primera del presente convenio.

d. Egutegia.

d. Calendario.

Egoitza zerbitzua urte osoan egongo da irekita, hau da, ezin izango da itxi ez jaiegunetan, ez oporretan.

El servicio residencial permanecerá abierto durante todos los días del año, esto es, no podrá cerrar ni los días festivos ni por vacaciones.

e. Egoitza zerbitzuaren prezioa.

e. Precio máximo del servicio residencial.

Egonaldi egonkorraren zein aldi baterako egonaldiaren plaza/eguneko prezioa 114,60 euro izango da.

El precio plaza/día en estancia tanto permanente como temporal será de 114,60 euros.

Kopuru horietan zerbitzuei datxezkien gastu guztiak sartzen dira, bai eta aplikatu beharreko zerga eta tasa guztiak ere.

En dichas cifras se entienden incluidos todo tipo de gastos inherentes a los servicios y cuantos impuestos, tributos y tasas fueran aplicables.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 17FO-9MY6-ZNM1-2GF3
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

f. Helburuak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak hauxe ezarri du:

a) Pertsona erabiltzaileei euren eguneroko bizitzako jarduerak egiteko zaintza eta laguntza pertsonala bermatzea, euren autonomia pertsonala mantentzeko ahalegina eginda eta, ahal den neurrian, pertsona horien garapena sustatzea eta horien narriadura saihestea.

b) Pertsona erabiltzaileek, beharrezko laguntzarekin, komunitatearen inguruarekin erlazioak mantentzeko eta komunitate horretan parte hartzeko diren jarduerak izatea edo garatzea.

c) Pertsona erabiltzaileek euren familiekin eta egoiliarrak diren beste pertsona batzuekin edo egoitzarekin zerikusirik ez duten bete pertsona batzuekin harremanak izatea eta zabaltzea eta, ahal den neurrian, zentroko bizitzan parte har dezatela.

d) Segurtasun sentsazioa bideratzea eta ematea.

g. Besteren laguntza behar duten adinekoentzako egoitza zerbitzuaren baldintzak eta edukiak.

1. Zerbitzuak, oro har.

1.1 Egoitza-zentroak Euskal Autonomia Erkidegoan adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuan jasotako baldintzetan eta xedapen gehigarri eta iragankorretan aurreikusitakoaren arabera emango ditu zerbitzuak.

1.2 Egoitza zentroak Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak izendatzen dituen pertsonak bakarrik hartuko ditu hitzarmen honen xede diren plazetan.

f. Objetivos.

En el marco de lo previsto en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de prestaciones y servivios del sistema vasco de Servicios Sociales:

a) Garantizar a las personas usuarias los cuidados y la asistencia personal necesaria para realizar las actividades de la vida diaria, tratando de mantener su autonomía personal y, en lo posible, fomentar el desarrollo y evitar el deterioro de la misma.

b) Que las personas usuarias mantengan o desarrollen, con el apoyo necesario, actividades orientadas a mantener sus relaciones con el entorno comunitario y a participar en el mismo.

c) Que las personas usuarias mantengan y amplíen las relaciones con la familia y con otras personas residentes o ajenas al medio residencial, y participen, en lo posible, en la vida del centro.

d) Favorecer su sentimiento de seguridad.

g. Condiciones y contenidos del servicio residencial para personas mayores dependientes.

1. Servicios en general.

1.1 El centro residencial prestará los servicios en los términos y condiciones recogidos en el Decreto 126/2019, de 30 de julio, de centros residenciales para personas mayores en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de acuerdo a lo previsto en sus disposiciones adicionales y transitorias.

1.2 El centro residencial acogerá, en las plazas objeto del presente convenio, exclusivamente a las personas usuarias señaladas por el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 17FO-9MY6-ZNM1-2GF3
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Zerbitzuak

Eskaintzen diren laguntza-zerbitzuek genero-ikuspegia txertatuko dute, hau da, emakumeen eta gizonen beharrizan eta interes desberdinak hartuko dituzte kontuan, arreta ematean eta zerbitzu horiek ematean egon daitezkeen desberdintasunak ezabatzeko.

Egoitza zentroan itundutako plazen erabiltzaileei zerbitzu hauek egin behar zaizkie, gutxienez:

